



AZKEN ASTEETAN JASANDAKO JAZARPENEN HARIRA

Azaroak 25aren harira antolatu genituen Jardunaldietako ikasleen parte hartzea handia ikusita, GUETeko kideok gure esker onak adierazi nahi ditugu. Hala ere, **azken aste hauetan pairatu ditugun zenbait eraso salatu nahiko genituzke** ohar honen bitartez. Azpimarratu nahiko genuke, eraso hauek ez direla eraso matxistak izan, **GUETek defendatzen dituen oinarri politikoen aurkakoak** baizik.

Hasteko, argi utzi nahi dugu ez dugula inongo erasorik onartuko: izan GUETen beraren edota edozein kideren aurkakoa. Erasoen soziologiari erreparatuz gero, konturatu gara erasotzaile gehienak beste korrante feministetako emakumeak izan direla. Benetan mingarria iruditzen zaigu emakume guztion ahizpatasunaren defentsaz hitz egiten duten hauek gure aurkako jazarpenak gauzatu izana.

Jazarpen hauetako batzuk duten larritasuna ikusita, beharrezko ikusi dugu gertakari hauen berri ematea:

- Duela aste batzuk, **gure kide bat zuzenki erasotua izan zen**: pertsona honek jarraipenak, hitzezko erasoak edota espazio pertsonalaren urrapena pairatu zituen, besteak beste. Argigarria da, eraso hauek gauzatu zituztenak lehen aipaturiko perfil konkretu honetako pertsonak izan zirela. Berrito azpimarratu nahiko genuke, ez dugula inongo erasorik onartuko eta hauen aurrean argi utzi nahi dugu GUETek elkartasuna eta zaintzaren defentsa aurrera eramaten jarraituko duela. **Uste dugu, gure arteko etsaitasun eta traizioak indartu beharrean zapalduon arteko elkartasuna martxan jarri eta elkarrekin ongizate kolektiboan oinarrituko den gizarte bat eraiki behar dugula gaurdanik.**
- Urte luzez garbitzaileei elkartasuna adierazi diegun moduan, aurten ere A25ari begira moskeo kanpaina bat jarri genuen martxan hauen egoera eta UPVren pasibotasuna salatzen. Kanpaina honetarako eginiko kartel batean *“EHUK bere protokolo feminista atera bitartean, bere soldatapeko garbitzaileek 14 urte daramatzate borrokan lan baldintza hobek eskatuz”* esaldia ageri zen. Hainbat karteletan, esaldiaren ondoan **“ez dira EHUKoak”** idatzi zuten garbitzaileei erreferentzia eginez. Honen harira, hainbat gauza gezurtatu nahiko genituzke: hasteko, argitu behar dugu **erantzun hau ez dela beste erasoen antzera soziologia beretik**

eratorri. Baieztapen honi dagokionez, nahiz eta garbitzaileak enpresa batengatik azpikontratatuak izan, **UPV da enpresa hau kontratatzen duena eta berak ere erantzukizuna du guzti honetan.** Honetan berrestengara garbitzaileak haien hitzez adierazi zigutenagatik jardunaldietako mahainguruan: ez Nekane Balluerka Errektore denetik, ezta berdintasunerako teknikariak jarri zituztenetik, hau da, “UPV feminista denetik”, ez dira inongo momentuan garbitzaileekin kontaktuan jarri edo interes minimorik erakutsi hauen lan baldintzak hobetzera bidean.

- Jardunaldi hauek **“Indarkeria matxistaren aurka, klase batasuna”** lelopean burutu genituen. Campusean zehar kartelak itsasi genituen, eta hauetan ere, erantzun bat jaso genuen: *“gizon langileek ez gaituzte erasotzen”?* Galdera honi erantzunez, argipen batzuk plazaratzeko beharra ikusi dugu. Lehenik eta behin, bai, gizon langileek erasotzen gaituzte. eta jazoera hau argi utzi dugu gure jardun orotan: izan kanpora begirakoetan edota barne mailako formakuntzetan. Beraz, aipatzekoa da testuingurutik kanpo egindako iruzikina dela honakoa, honen helburua gure jarduna oztopatzea izan zelarik. **Klase batasunaz ari garenean, desjabetuon arteko batasunaz ari gara hizketan, emakume langilearen askapenerako berme bakarra baita guretzat. Ez du esan nahi erasoak onartzen ditugunik, kontrara, batasun erreal bat emateko langile klasearen baitako erasotzaile figurak borrokatzea eta salatzea oinarrizko jarduna dela uste dugu.**

Jarrera hauek, esan bezala, ez dira GUETen aurkakoak soilik, oinarri politiko batzuen aurkakoak baizik eta beraz, guztion erantzukizuna dela uste dugu honi aurre egitea. **Horren adibide garbia da Arrakalako burkideek azken asteetan pairatu duten jazarpena ere, doakiela gure babes eta elkartasunik beroena!**

Jakin badakigu, maiz, ez zaigula erraza egiten egon daitezkeen iritzi ugariak bateratzea. Lehengo ikasturtean esan genuen bezala, guk **begi onez ikusten dugu eztabaida politikoa, baldin eta talde eta iritzi guztiak errespetatuak izateaz gain, espazio politiko erreala garatzeko aukera badute.**

“Bortitz eraikitako munduan miraririk ez da gertatuko, gure etsaiak ez gaitu sekula lagunduko. Borrokatuz ez bada, ez da ezer lortuko.”



GUET

GUET
Gasteizko Unibertsitateko Emakume Taldea
2019ko abenduaren 5a